

Hitzatzea

Bakarrik dira barregarri sekula amodio gutunik
idatzi ez dutenak

PATXI ZUBIZARRETA



Baina maite zaitut –itzuli zuten gero euskaraz–/ atzo jaio izan bazina bezala/ neurea baino ez bazina bezala/ eta zure salbamenaz/ nire esku ez balego bezala.

Mais je t'aime –itzuli zuten gero frantsesez–/ comme si tu étais né hier/ comme si tu appartenais qu'à moi/ et comme si ton salut/ ne tenait qu'à moi.

But I love yo –itzuli zuten gero ingelesez–/ as if you had been born yesterday/ as if you were mine alone/ and as if you depended on me/ for your salvation.

Pero te quiero –sortu zuten, lehenik, gaztelaniaz–/ como si hubieras nacido ayer/ como si fueras sólo mío/ y como si tu salvación/ dependiera de mí.



Mamuak izugarri –itzuli zuten gero euskaraz–
/ bihotzak odoletan/ zernahi gertatzen da/ elebe-
rri-ipuinetan/ Liburua amaitutakoan/ irribarreak
berean/ edozer sartzen baita/ istorioaren sarean.
Unha pantasma te asusta –itzuli zuten gero gale-
goz–/ *on che insipira compaixón/ pois todo o que*
les nun libro/ pode suceder ou non./ Remate o rela-
to/ cun sorriso ledol/ ou con bágoa tristel/ iso é o de
menos/ porque o libro sempre/ che dará alento. Els
fantasmes fan por –itzuli zuten gero katalanez–/
sagnen els cors ferits/ comença la lectura:/ tot pot bé
succeir./ El llibre acabarà/ el somni no té fi/ perque
la història és tal/ que tot pot succeir. Fantasma de
armas tomar/ asustan sin vacilar/ al que se atreve a
mirar/ en los libros de hechizar./ Los libros han de

llegar/ y al lector entusiasmar/ porque la historia es
tal/ que todo puede pasar –itzuli zuten gero gazte-
laniaz, izan ere 1998ko Haur Liburuaren Nazio-
arteko Eguna zela eta, Bart Moeyaert belgiarrari
egokitu baitzitzaion urte hartako mezua idaztea,
1999koa –gorago idatzia– Miguel Angel Fernán-
dez-Pachecori sortzea egokitu zitzaion bezala.

Gisa honetan, kasik *ad infinitum* jarrai gene-
zake, Andersen jaiotzaren urteurrenaren kariaz
idatzi diren xelebrekerien zerrenda egiten. Baina
gehiegi ez luzatzearren, Shigeo Watanabe japo-
niarraren bi pasarte ekarriko ditut lerrootara:
«Horrela, bada, kontakizunak niretzat guztiz ga-
rrantzitsuak izan dira: nolabaiteko bake mentala
eman zidaten, nire horizonteak zabaldu egin zi-
tuzten, bakardadea eramateko beharrezko otzan-
tasun eta gaitasuna erakutsi zidaten eta kuraia eta
sendotasuna ateratzea ahalbidetzen duen indarra
elikatu zuten». Edota: «Liburu bidez batera
irakurtzen genuen, adiskide hurbilak aurkitzen
genituen, irudizko erresuma berriak esploratzen
genituen eta munduan zehar bidaiatzen genuen».

Nik neuk ere bat egiten dut gehiegikerien ze-
rrenda horrekin, ez pentsa, eta hain zuzen ere
Miguel Angel Fernández-Pachecoren testua auke-
ratu zuten urtean, beste adibide bat jartzearren,
horrelako kontu erridikuluak –barregarria esatea
ez baitzait nahikoa– idatzi nituen nik: «Bizitza,
funtsean, itsasoa bezalakoa da, edo itsasoan ba-
rrera egiten den bidaia luze baten antzekoa. Eta
abentura eder eta arriskutsu horretan, idazleek
beren mezua botila batean sartu, eta itsasoratu
egiten dute norbaitek jasoko duelakoan. Are ge-
hiago esango nuke: liburuak gutunak bezalakoak
dira eta idazleek gure bihotzeko postontzira bi-
daltzen dizkigute, bihotzetik bihotzera alegia.
Liburu bakoitza zabaltzea, adiskide baten gutu-
na irakurtzen hastea bezalakoxea da, eta irakurri
ahala tristurak arintzen sentitzen ditugu, edo
pozak handitzen, edo bidaiatzen hasiak garela...
Zeren hori baita liburuaren ahalmen handienez-
tako bat: irakurtzen ari zaren tokitik mugitu gabe

ere, sekulako bidaiak egin ahal izatea». Jesus, Maria eta Koxme!

Sinonimoak bilatzen hasiz gero, xelebreak, barregarriak, erridikuluak, hau da, orain arteko adjektiboekin batera, bote prontoan, aurreko testu horiek guztiak lotsemangarriak, jasanezinak, gehiegizkoak, absurduak, pitokeriak, hutsalke-riak, azalkeiak eta nik ahal dakit beste hainbat bururatzen zaizkit.

Idazleok transzendental jartzen gara, antza, literaturaz eta liburuez hitz egiten edo idazten hasten garenean. Baina hitz eta adjektibo eta gogoe-ta horiek guztiak kontrako eztarririk joaten zaizkit. Liburuek hainbeste ontasun eta dohain eta ahalmen baldin badauzkate, zergatik ez ditugu

irakurleak erakartzea lortzen. Kontrakoa gertatzen dela esango nuke, hau da, liburuen ontasun eta dohain eta ahalmen horiek guztiak aipaturik, uxatu egiten ditugula irakurleak. Uxatu. Geure lana liburu ederrak sortzea izan beharko litzateke eta, hori, hori ez da batere erraza. Ez, haur eta gazte literatura ona egitea, literatura ona egitea, funtsean, ez da batere erraza.


Oso oker ez banago, Wittgenstein poetak —edo filosofoa esan beharko ote genuke?— adierazi zuen hitz egin ezin daitekeen horretaz hobe dugula isiltzea. Oso oker ez banago, teologia edo Jainkoa bezalako gaiez ari zen hori idatzi zuenean. Bada niri antzeko zerbait gertatzen zait, zerekin eta, liburuekin. Haiei buruz hitz egiten hasi bezain laster, «Kakaztu duk, Chuck» esateko gogoa etortzen zait (barka itzulpenaren txarra, beharbada zuzenagoa da, ulergarriagoa da *La cagaste*, *Burt Lancaster*).

Hitz atze honetan jaso ditudan testuen izpirituarekin bat egiten dut, baina adierazpenetan, literaturkerian tratatzen naiz, eta tronpatzen, eta erortzen. Beharbada liburua, gogoeta eta sentimenduz beterik egon arren, askoz ere arruntagoa zaidalako, askoz ere egunerokoagoa. Eta maiteagoa.

«Mundua irakurleena da. Liburuen bitartez noranahi joan gaitezke: beste herrialdeetara munduan zehar, edo urrutiko planetetara. Irakurketaren bidez, naturaren misterioetan sar gaitezke; are besteen bihotza eta gogoa esploratu ere egin dezakegu. Zenbat altxor ditugun zain! Azalak ireki, eta orria pasa hastea besterik ez dugu egin behar.» Horra 1994an Katherine Paterson idazle ipar amerikarrak idatzi zuena. Baina, lasai, ez naiz lehengo sinonimoak erabiltzen hasiko. Soil-soilik adierazi nahi nuen haren mezua istorio baten kontaketa hunkigarriarekin hasten zela, eta beharbada idazleak hobe zuela horretan amaitzea: «Nire heroi estimatuenetako bat Frederick Douglass ipar amerikar handia da. Douglass esklabutasunean jaio zen, Marylanden, 1817. urtean.



Abolizionista, estatu gizona eta Abraham Lincoln-en aholkulari izatera iritsi zen. Douglasssek bere autobiografian kontatzen du nola, haurra zela, bere etxeko andereak alfabetoa eta zenbait hitz erraz irakatsi zizkion, baina etxeko jauna gertatzen ari zenaz konturatu zen. Gizona haserretu eta bere emazteari Frederick gazteari irakasten jarrai zezan debekatu zion. Esklabu bati irakastea aldi berean legearen kontrakoa eta arriskutsua zela zioen. “Behin betirako ezgaituko luke esklabu izaten jarraitzeko. Bidenabar, tratagaitz bihurtu eta ez luke inolako erabilgarritasunik izango bere jabearentzat. Berari ere ez lioke batere mesederik egingo, kalte handia baizik. Urduri eta zoritxarreko bihurtuko luke.” “Orduz geroztik –ziurtatzen du Douglasssek–, ulertu nuen zein zen esklabutasunak jarraitu beharreko bidea askatasunera iristeko... Irakaslerik gabe ikasteak zuen zailtasunaren jakitun, itxaropen eta erabakitasun handiz kostatzen ahala kostatzen irakurtzen ikasteari ekin nion...”.



Esanak esan, beharbada Pessoa dugu, bere poemetako batean, adierazi nahi eta adierazi ezin hau, kontraesan hau, alegia, ongien adierazi zue-na, hau da, gure sentimenduak adierazi beharra, nahiz eta jakin adierazteko moldea oso dela barregarria, eta erridikulua, eta xelebrea. Poemaren izenburua *Amodio gutun guztiak barregarriak dira* da eta honela dio: «Amodio gutun guztiak/ barregarriak dira./ Ez lirateke amodio gutunak izango/ barregarriak ez balira./ Nik ere, garai batean, amodio gutunak idatzi nituen,/ besteak bezalaxe,/ barregarriak./ Amodio gutunek, amodiorik bada/ barregarriak/ izan behar dute./ Baina, azken finean,/ bakarrik dira barregarri/ sekula amodio gutunik/ idatzi ez dutenak./ Garai hartara itzuli ahal banintz,/ amodio gutun barregarriak/ ohar-tu gabe/ idazten nituen garai hartara./ Egia esan, gaur egun/ amodio gutun haietatik/ gogoan ditudan gauzak/ barregarriak dira./ (Hitz esdrujulo guztiak,/ sentimendu esdrujuloen antzera,/ berez dira/ barregarriak.)».